




prestatu...



urriaren 24tik azaroaren 18ra bitartean



GURUTZALDIA



GOZATU PRESTATZEN!

Ahobiziak eta belarriprestak ahalduntzeko ordubeteko saioak

Hilaren 24tik azaroaren 17ra, hizkuntza asertibitatean entrenatuko gara kolektiboki, hizkuntza ohiturak aldatu eta konplexuak alde batera uzteko. Saioak Antonio Mercero gunean izango dira, azaroaren 7tik 10era (biak barne). 18:00etatik 19:00etara edo 19:00etatik 20:00etara.

Hizkuntza ohiturak aldatzeak nork bere aldetik ahalegintzea eskatzen du, eta esfortzu horretan lagundu nahi ditugu lasarteoriatarrak. Horretarako, hizkuntza asertibitatean entrenatzeko saio kolektiboak antolatu ditugu Antonio Mercero gunean: Bea Egizabal eta Intza Alkain izango dira gidariak, gure guru linguistiko gogokoenak. Umore handiz, konplexu eta aurreiritziak alde batera utzi eta herritarrak euskahalduntzeko aholkuak eskainiko dituzte ordubeteko saioetan.

MERCERO GUNEAN A Z A R O A

ORDUA / EGUNA	7	8	9	10
18:00 - 19:00	X			
19:00 - 20:00				

Gerturatu zure sakelako telefonoa eta izena eman!



Deitu: 943-37 61 84 (Udaleko Euskara Zerbitzua) edo 943-37 14 48 (Ttakun Kultur Elkartea)





prestatu...



Aldizkari honekin batera Prestatu fasearen kartela jasoko duzu. Hartu, eta eskegi Sentiturenaren alboan, etxeko leiho edo balkoiren batean! Ez izan beldurrik kanpoko aldean zintzilikatzeko, papera iragazgaitza baita! Lagundu herria girotzen!



EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EMAN IZENA EUSKARALDIAN



izenematea.euskaraldia.eus

AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Ariketa izango den 15 egunetan ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko prest al zaude?

BAI, BETI

BAI, NAHI ETA AHAL DUDANETAN

- 1) Lehen hitza euskaraz egingo dut.
- 2) Elkarriketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.

- 1) Dakitenei niri euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
- 2) Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.

